

Elisabet Irazu Garikano  
Gizarte Teoria eta Egitura  
EHU 2020-2021

## HAUSNARKETA

Testu hau José Saturnino Martínez Garcíaen *Estructura social y desigualdad en España* liburuko “Diferencia y desigualdad” atalaren inguruko hausnarketa bat da. Bi gai nagusi lantzen dira bertan: Ezberdinkeria eta ezberdintasunaren arteko aldea, gustoari lotua, eta klase sozialak ezberdinkerian duen eragina. Testuan auzi hauei buruz teoria ezberdinetatik egindako ekarpenak azaltzen badira ere, ikuspegi marxistan zentratuko naiz.

“Keria” eta “tasun” atzizkien arteko aldeak ezberdinkeria eta ezberdintasunaren arteko aldea salatzen dute: Ezberdintasunak gizakiaren berezko aniztasunari egiten dio erreferentzia, ezberdinkeriak berriz parekoa ez den baliabideen banaketa bati. Gure gizartean ezberdintasunak ezberdinkeria ekarri dezake: Adibidez, musulmana izateak mendebaldean lana lortzeko oztopo izan daiteke. Testuan bi ezberdinkeria eragiten duten ezberdintasunen artean bereizten du: Alde batetik ezaugarriak daude (adina, etnia), eta bestetik zaletasunak. Lehena izan da ezberdinkeria iturri agerikoena eta testuaren arabera gehien garaitu dena, nahiz urtero hiltzen dituzten emakumeen zifrak, edo Mediterraneoan galdutako bizitza guztiek, errealki ezaugarri hauek sortutako ezberdinkeriekin zenbateraino bukatu den galdetzea ametitzen diguten. Egia da, ordea, ezberdinkeria hauek berresteko mekanismoak asko aldatu direla: Gaur egun ez dago emakume eta gizonen ezberdinkeria betikotzeko mekanismo legal agerikorik, ezberdinkeria ordea izan bada. Sexuaren adibidea erabiltzen dut eta ez etniarena kasu honetan Atzerritar Legearen existentziak ez duelako babesten mekanismo legalen ahultzearen ideia.

Erreparatu diezaiozun, ordea, ezberdinkeria erreproduzitzeko balio duten beste ezberdintasun motari, zaletasunaren auziari. Ikuspegi liberalak, publiko/pribatu bereizketaren baitan, justu gisa hartzen du pribatutzat dauzkan balioek gustuan duten eragina, baita gustu ezberdinek gero ezberdinkeria sortzea. Errealitatearen azterketa empiriko bat nahikoa da, ordea, gustua gizarte egiturarekin lotua dagoela eta hura erreproduzitzeko balio duela ikusteko. Gertuko adibide bat jarritz, hau HEFAko eta Informatika fakultateetako genero arrakalari begiratzea bezain agerikoa da.

Bourdieu esan bezala, gustua kategoria ideologiko bat da, sozialki determinatua, eta ezberdinkeria soziala berresteko balio duena. Aukeramen askatasuna ez da erreala: aukerak baldintzatzen du erabakia, eta aukerak ez dira norbanakoak ezarritakoak. Botere egitura batek jendearen gustuan eragiteko gaitasun handia duela onartzeak, ordea, ez du esan nahi hau era mekanikoan ematen denik: errealitatea hori baino askoz anitzagoa da. Abu-Lughodek “La

resistencia idealizada: trazando las transformaciones del poder a través de las mujeres beduinas” (1990) artikuluan esaten digun bezala, arau sozialen existentzien aurrean pertsonen arau horiek betetzea ala ez betetzea erabaki dezakete, eta zentzu horretan, boterea ez soilik negatiboa baizik eta positiboa, sortzailea, izan daiteke; jarrera ezberdinei eman diezoieke bide. Gainera, botere egitura bakarra bada ere, bertan talde ezberdinek gustoari dagokionez jarrera ezberdin eta sarritan kontrajarriak izan ditzakete.

Adibide pertsonal batekin saiatuko naiz hau irudikatzen: DBHn, nerabeak ginela, oso ohikoa zen nire inguruan amatasunaren inguruko irudi negatibo bat izatea neskon artean, esatea ez genuela sekula ama izan nahi. Hemen zenbait auzi gurutzatzen dira: Alde batetik, gizarte kapitalista daukagu, zeinak gizartearen erreprodukzioarako beharrezkoak diren jardura asko eta asko pribatizatu eta feminizatu egiten dituen. Honi jarraiki, neska gazte askok amatasuna kondena bezala ikusten dute, *de facto* gure gizartean emakume langilearentzat zama handia baita seme alabak izatea (bai ekonomikoki, bai denbora aldetik, bai psikologikoki). Aldi berean bai komunikabide nahiz era ezberdinetako testu kulturalak amatasuna emakumearen identitatearen parte garrantzitsu eta determinantea izatearen ideia zabaltzen dute. Aurreko honen aurka, mugimendu feministak aldarrikatu du emakumeak ez duela zertan ama izan. Horretaz gain, ideologia liberalak norbanako autonomo eta independentearen ideia goresten du, zeinak emakume gehienentzako ez duen bat egiten amatasuna ematen den baldintza sozialekin.

Nire ustez, aurreko adibidean kasu konkretu horretan gustuan eragiten zuten indar eta faktore ezberdinak azaltzen dira, nahiz beste batzuk ere egongo direla pentsatu daitekeen. Ikusi bezala, gustuaren determinazio soziala oso konplexua da, konplexua den bezala azaltzea zergatik amaitzen dugun hainbeste emakumek HEFAko fakultatean, eta hain gutxi Informatitakoan. Auzi nagusia, ordea, Martínez Garcíari jarraiki, ez da jendeari gauza bat edo beste gustatzea, baizik eta horren arabera hartutako erabakiek ezberdinkeria berresten eta betikotzen dutela.

Ezberdinkeria soziala ulertzeko idazleak klase soziala kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen du. Teoria ezberdinek klase sozialen definizio ezberdinak proposatu izan dituzte, eta hauen araberrako irizipide ezberdinak klase sozialak empirikoki aztertzeko. Nire ustez marxismoaren ekarpenak dira interesgarrienak. Testuan klase sozialaren hiru dimentsio azaleratzen dira: Alde batetik pertsonak klase egituran betetzen duten posizio objektiboa dago (produkzioarako bitartekoak edukitzea ala ez, *la clase en sí* esaten zaiona). Beste alde batetik pertsonen posizio objektibo berbera duten besteekin batera sortzen duten identitate komuna legoke (*la clase para sí*), zeina ez duen aurrekoak determinatzen, aurrekoa beharrezko baldintza bada ere. Azkenik, klase formazioa legoke, hau da, antolakuntza politikoaren bidez klase interes bat edo bestea babesteko aukera. Marxismoaren analisi hau ikuspegi ezberdinetatik izan da kritikatu, besteak beste neoweberianismoak klaseen arteko ezberdinkeria lanaren berezko izaerari egozten dio, eta ez produkzioa sozialki antolatzen den

moduari. Marxismoaren ikuspegitik hau errealitate sozialaren mistifikazio bat litzake, ezberdinkeria sozialak naturalizatu nahi dituenak.

Klasearen definizio hau ez da nahikoa, ordea, errealitatearen ulerkera sakon bat izateko. Izan ere, klasea produkzio bitartekoen jabetzak definitzen badu ere, nola aztertuko dugu klasea empirikoki? Eta zer lotura dago klasearen eta orain arte aipatutako gustuaren artean? Nahikoa al da klasearen aldagaia ulertzea errealitatean ematen diren fenomenoak azaltzeko?

Ohiko proposamen bat klasea aztertzeko errenta mailari erreparatzea izan da. Sarritan, hau hiru klase ezberdinen existentziaren ideiarekin batera joaten da, baxua, ertaina eta altua liratekeenak. Honek produkzio bitartekoen jabetzak definitutako antagonismoa (bi klaseen artekoa dena, bitarteko horiek dituztenak eta ez dituztenak) inbisibilizatzen du. Klaseen barruan, ordea, errenta mailaren arabera estratuak identifikatu daitezke, eta hau baliagarria izan daiteke bai estratu ezberdinen klase interesen inguruan bai ezaugarri kulturalen inguruan hitz egiteko. Adibidez, COVID-19arekin batera etorritako krisiak eragin oso kaltegarria izan du burgesia txikiaren zati handi batentzako (adibidez, taberna ezberdinen jabe direnentzako), baino burgesia handiaren poltsikoak bete ditu (munduko empresa handienetarikoenak diren sare sozial eta teknologia digitalekin lotutakoak). Pandemiaren kudeaketari lotutako klase interesak, beraz, ez dira homogeenak klase baten baitan ere. Ezaugarri kulturaleri dagokionez ere, klaseak ez dira homogeenak: Joseba Zalakain (2020) SIIS zentroko ikerlariak seinatzen duen bezala, errenta maila altua eta euskaraz jakitea batera doaz, eta harremana kausala ez bada ere, Euskal Herriko pobreen (marxista batek proletalgo kategoria erabiliko luke) %8ak soilik du euskera ama hizkuntza gisa. Hizkuntza ezberdintasuna eta ezberdinkeria ekonomikoa batera doaz, eta hau ulertzeko inmigrazioa, hizkuntza eskakizunen auzia, hezkuntza sistema... bezalako fenomeno eta insituzioetara jo beharko dugu.

Zaletasunak eta ezaugarri kultural ezberdinak nola sortzen diren ikusteko, beraz, beharrezkoa da klase estratu ezberdinak (proletalgoa eta langile aristokrazia) identifikatzea, baita bloke kultural ezberdinak ere (adibidez, euskal nazionalismoarekin lotutakoa eta espainiar nazionalismoarekin lotutakoa). Horretaz gain, sexua eta etnia bezalako aldagaiak ere ezinbestekoak dira. Faktore hauek guztiek era konplexuan eragiten dute pertsonon subjektibitatean, baino ez dute bide bakar bat determinatzen.

Bukatzeko, ordea, lehen aipatutako kontu bat berreskuratu nahiko nuke: Benetako auzia ez dela desberdintasunak nola sortzen diren baizik eta zergatik eragiten dituzten ezberdinkeriak. Izan ere, kapitalismoan gustu ezberdinak edukitzeak ezberdinkeria soziala eragiten du, komunismoan ez bezala. Ados baldin banago ere adierazpen honekin, atalaren azken esaldiak harritu egin nau. Martínez Garcíak dio komunismoan pisu gehiegi aitortzen zaiela norbanakoaren gustuei produkzio antolatzerakoan, eta honek kaos produktiboa ekarriko lukela. Klase gabeko gizarte batean produkzioa norbanakoen gustuaren arabera eta ez gizartearen beharren arabera antolatuko dela baieztatzea nahiko gauza ausarta iruditzen zait, izan ere, Manifestu Komunistan bertan esaten da askatasun, indibidualitate eta

independentzia burgesak abolitzea bilatzen duela sozialismoak. Ez da oso harritzekoa, ordea, azken minutuko eraso hau komunismoari: testuaren hasiera hasieran, ongizatea lana eta aisialdiaren arteko oreka gisa definitzean, Martínez Garcíaak argi utzi digu erreformista bat dela. Auzia ez baita erabakimen askatasuna, erabakien baldintzen gaineko boterea edukitzea baizik.

#### Bibliografia:

Abu-Lughod, L.(1990). «La resistencia idealizada: trazando las transformaciones del poder a través de las mujeres beduinas». *American Ethnologist*, 17 zbk. 41-55 or.

Engels, Federico;Marx, Karl.(1848). *Manifiesto Comunista*. La Emancipación.

Martínez García, José Saturnino. (2013). “Diferencia y Desigualdad”. *Estructura social y desigualdad en España*.

Zalakain, Joseba. (2020). Pobrean hizkuntzak. Berria.

Eskuragarri hemen:

<<https://www.berria.eus/paperekoa/1872/006/001/2020-10-15/pobreen-hizkuntzak.htm>>